

Eneko Elozegi triatletarentzat Beasain Kirol Sari Nagusia

Azken eguneratzea: Azteazkena, 02 Urtarrila 2019 17:19

Argitaratua: Azteazkena, 02 Urtarrila 2019 17:18



2017an izandako istripuak eragindako kalteetatik osatu eta berriz ere nazioarte mailan onenen artean lehiatzea lortu du Eneko Elozegi triatleta beasaindarrak. Meritu horiengatik eta 2018an lortu dituen emaitzengatik Beasain Kirol Sarien epaimahaiak Sari Nagusia berari ematea erabaki zuen.

Eneko Elozegi, Beasaingo “burdinezko” gizona

Eneko Elozegi triatletarentzat Beasain Kirol Sari Nagusia

Azken eguneratzea: Azteazkena, 02 Urtarrila 2019 17:19

Argitaratua: Azteazkena, 02 Urtarrila 2019 17:18



Bizikletan entrenatzen ari zela 2017an istripu larria izan zuen. Baina ez zuen inolaz ere etsi eta 2018an berriro ere Iron-man proba ofizialetan lehiatzen izan zen, gainera aparteko emaitzak lortuz, proga guztietan top10 izanez.

-Malaysian 6. postua / Taiwanen 8. postua / Ingalaterran 9. Postua / Filipinetako Iron-manean 4. postua.

-Espainiako 3 Iron-man onenen artean izendatu dute aurtan.

-Munduko Iron-man Ranking-ean Top100 dago.

Igartza jauregian burututako IIIgarren Beasain Kirol Sarien galan jakitea falta zen sari bakarra zen Sari Nagusia. Irabazlearen izena Aritz Elustondo futbolariak irakurri zuen jauregia bete zuten ikusle guztien aurrean. Txalo zaparrada luze eta bero batekin jaso zuten guztiek Elosegiren izendapena.

Beasain Kirol Sarien helburu nagusia jendaurrean Beasaingo edo Beasainen Kirol alorreko jarduera bultzatzen edota emaitzetan nabarmendu diren kirolariei eta erakundeei esker ona ematea da. Udalak duela hiru urte abian jarritako egitasmo honekin, kirolaren balioak ere zabaltu nahi dira, baita beste kirolariengan eta herriarregian eragin nahi da denak kirol jardueretan parte hartzera motibatzeke.

Urteko Kirol Sarietarako 2018an herriarrek proposatu zituzten sari bakoitzerako izangaiak, horrela aukera hori herriarrei zabaltu nahi izan zaie.

2018an, sariak bi ataletan banatu dira; urteko kirol sariak eta aipamen bereziak batetik eta Udalak ematen dituen ohorezko udal sariak.

Aipamen bereziak

Aipamen berezietan hauek izan dira 2018an gehien nabarmendu diren Beasaingo kirolarien lorpenak omentzea izan da helburua eta egindako merituei esker oroigarria jaso zutenak hauek izan ziren:

- **Amair Mariezkurrena** (igeriketa)
- **BKL infantil haundi mailako mutilen taldea** (saskibaloian, Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelaldun)
- **Beñat Turrientes** (Errealeko gaztetxo mailako futbolaria)

Espainikao selekzioak deituta)

- **Ihintza Lekuona** (errugbi jokalaria, Euskadiko selekzioarekin jokutzen egona)
- **Ander Alberdi** (errugbi jokalaria Espainiako Selekzioarekin adin azpiko maila desberdinetan jokaturakoa)
- **Errugbi jokalaria** 16 urtez azpikoak 17/18 denboraldian euskadiko txapeldun
- **Maitane eta Ekain Aizpurua** (rallyetako pilotu eta kopilotua, RAC lurreko rally kopan parte hartu dute)
- **Aitor Garmendia** (Txindokira 24 orduko epean igoera-jaitziera gehien egin izanaren errekorra ezarri du; 13 guztira, 23 ordu eta 12 minututan)
- **Trigoi** taldea taldekako Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuitoa irabazi du. Zirkuitu honetako 2 proga Beasainen burutu dira (Igartzan eta Arriaranen).
- **Octavian Mihail Romanescu** (Atletismoa). Real Sociedad taldeko atleta, pista estalian Gipuzkoako eta Euskadiko Txapeldun 60 metrotan. Zerupear Gipuzkoako eta Euskadiko Txapeldun Nagusia 100 metrotan. 100 metrotan 10"50 marka egina du (Gipuzkoan inoiz izan den 4. Markarik onena).
- **Beñat Garmendia** (pilotaria) afizionatu mailan ibilbide bikaina egina du. Muebles Polque, Goñiren oroimenezkoa eta Etorkizuneko Pilotarien III. ETB-LEPM txapelketa ospetsuak irabazi ditu Zubizarreta bikote izanik. Aspe enpresarekin bi urteko kontratua sinatu du eta urtarrilaren 5ean profesionaletan debuta egingo du.

Iñaki Mujika Garaialde "Arrieta" zenari oroimen tartea egin zitzaion galan. Maiatzaren 22an 69 urte zituela, utzi gintuen. Gaztetan herri kirolekin aritua, eta azkeneko hamarkadetan, Loinatz Jailetako herri kirol saioen antolatzailea. Herrian oso ezaguna eta maitatua.

Urteko Kirol Sariak

Lau sari banatu ziren

- Emakumezko Kirolariari edo Kirol Taldeari Saria: **Ane Etxezarreta** (Realeko jokalaria)
- Gizonezko Kirolariari eta Kirol Taldeari Saria: **Eneko Elozegi** (triatleta)
- Kirol Jardunaldiari Saria: **Beasaingo Motor Asteburua** eta Erauskingo igoera
- Erakunde Babesleari Saria: **HINE**

Epaimahaiak saridun guzti hauek izendatu ondoren, hauen artetik

erabaki zuen zein izango zen **2018ko SARI NAGUSIA** eta Eneko Elosegiri ematea erabaki zuen aho batez.

Ohorezko Udal sariak

Udalak bere erabakiz aurten 2 sari ematea ebatzi zuen:

.Kirol Ibilbideari Ohorezko Udal Saria: **Loinatz klasika txirrindulari proba** bere 91garren edizioan.

.Kirolaren Ohorezko BEASAIN Saria: **Aritz Elustondo** realeko jokalaria.

2018ko sarietarako epaimahaia osatzeko Kirolaren Udal Fundazioko lehendakariak batzorde aholku-emaile bat izendatu zuen izangaien merezimenduak baloratzeko. Elena Ruiz, Fundazioko Lehendakariarekin batera epaimahaikide izan ziren Kirolaren Udal Fundazioko zuzendaria Jon Alcayaga, Beasaingo kirolaren berri eta kirolari beasaindarren berri jarraitzen duen erreferentziazko pertsona, Josean Saiz, aurreko urteetako saridun bat, Goierri Gorri Elkartetik Koldo Zaldua, erreferentziazko Kirol elkarte baten ordezkaria, Txindoki Atletismo Taldetik Rakel Barcenilla eta Beasaingo Udaleko komunikazio arduraduna Mikel Apaolaza.

Sari ematearen galako irudiak [hemen](#)